

## BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

2359

*EBAZPENA, 2022ko maiatzaren 19koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria-rena, erakundeentzako eta enpresentzako deialdia irekitzen duena, praktikak egingo dituzten ikasleak har ditzaten, IVAPen mendeko LHIEE Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatutako «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVII. (47) Ikastaroa»ren esparruan (2021-2022).*

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP), 2021ean, ikastaro honetarako deialdia egin zuen: «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVII. (47) ikastaroa» (2021-2022), IVAPen mendeko LHIEE Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatutakoa. Ikastaroa, zeina 700 ordukoa baita, deialdi bakar baten barruan egin ahal izango da oso-osorik edo, bestela, modulu teorikoak independenteki egin ahal izango dira, eta, horretarako, matrikulatutako deialdiari dagokion ikastaroaren baldintza guztiak bete behar dira. Moduluko egitura horren bidez, bertaratuek egokitu egin ahal izango dute ikastaroaren erritmoa beren jardun profesional eta/edo pertsonalera, aukera ematen baitzaie prestakuntza etenik gabe edo moduluka egin dezaten.

Ikastaro horren egituraren arabera, azken 8 urteetan hirigintza-alorrean 48 praktika-hilabete baino gutxiago egin dituzten ikasleek 300 orduko praktikaldia egin dezakete, erakundeetan eta/edo enpresetan. Praktikaldi hori ez da derrigorrezkoa LHIEEren «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVII. (47) ikastaroa»ri dagokion «Hirigintza diploma» lortzeko.

Ikastaroan zehar jasotako ikaskuntza teoriko-praktikoa osatzeko xedea dauka praktikaldi horrek; beraz, gaikuntza eta trebetasun praktikoak eskuratzeko aukera ematen zaie praktika horiek egiten dituzten pertsoneri, ikastaroaren edukien eremuan, erakundeetako eta enpresetako lan profesio-naletan lagunduz.

Hirigintzaren eta lurralde- eta hiri-ikasketen eremuan, are nabarmenagoa da prestakuntza praktikoaren beharra, eremu konplexua izateaz gain, guztiz zeharkako gaia baita enpresa askoren jardueran, eta, zalantzarik gabe, administrazio publikoen jardueran.

Praktikaldian dauden pertsonak hartuz erakunde eta/edo enpresa hauek erakusten duten lankidetzak gizarte-balio handia ematen dio haien ekimenari; horrela, guztien ahalegina batuz, kalitatea eta prestakuntza praktikoa emango diete hirigintzako etorkizuneko profesionaleri.

Hori guztia kontuan hartuta, hau

### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Irekitzat deklaratzeko erakundeek eta enpresek ikasleak praktiketan hartzeko deialdia, IVAPen mendeko LHIEE Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatutako «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVII. (47) Ikastaroa»ren esparruan (2021-2022).

### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka egiteko, gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz. Hilabeteko epea izango da horretarako,

2022ko maiatzaren 31, asteartea

ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera. Errekurtsoa ebazpen hau eman duen organoari jar dakioke, edota, bestela, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari. Gora jotzeko errekurtsua aurkezten denetik hiru hilabete pasatzen badira ebazpen espresurik eman gabe, errekurtsua ezetsizat hartu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzien bidera jo ahal izango da.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 19a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,  
MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA.

## ERANSKINA

ERAKUNDEEK ETA ENPRESEK «HIRIGINTZA ETA LURRALDE IKASKETAK XLVII. (47) IKASTAROA» EGITEN DUTEN IKASLEAK PRAKTIKETAN HARTZEKO DEIALDIA IREKITZEN DUEN EBAZPENARENA. IKASTARO HORI LHIEE LURRALDE ETA HIRI IKASKETETARAKO EUSKAL ESKOLAK ANTOLATU DU, 2021-2022 IKASTURTEAN

## OINARRIAK

Lehenengoa.– Xedea.

Deialdi honen helburua da, batetik, erakundeentzako eta enpresentzako deialdia irekitzea, praktikak egingo dituzten ikasleak har ditzaten, LHIEE Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak 2021-2022 ikasturterako antolatutako «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVII. (47) Ikastaroa»ren esparruan, eta, bestetik, praktika horien ezaugarrien berri eta praktika horien esparruaren berri ematea erakundeei eta enpresei, praktikaldiak formalizatzeko eta garatzeko oinarriak ezartzearekin batera.

Bigarrena.– Praktiken ezaugarriak.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen baten bidez araututa dago praktikaldi hori ikasleentzat. Ebazpen horren bidez, erakunde edo enpresetako diruz lagundutako praktikak erregulatu eta haietan parte hartzeko deia egiten zaie Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatutako «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVII. (47) Ikastaroa» (2021-2022) egiten duten ikasleei.

Praktikak borondatezkoak dira, eta ezaugarri hauek dituzte:

a) LHIEE Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatutako «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVII. (47) Ikastaroa»ren ikasleei zuzenduta daude (700 orduko ikastaroa) eta, parte hartzeko, sei eskola-moduluak gaindituta izan behar dituzte.

b) Ikasleek, praktikak eskatu eta egin ahal izateko, azken 8 urteetan, 48 hilabete baino gutxiagoko hirigintza-arloko praktika izan behar dute.

c) Praktikaldia 300 ordukoa da, eta urteko azken hiruhilekoan egingo da. LHIEEK eta praktikak egingo diren erakundeak/enpresak zehaztuko dute hasteko eguna, eta 2022ko abenduaren 31 baino lehen amaituko da. Halaber, erakundearen/enpresaren lan-ordutegiaren arabera izango da praktikaldia, betiere, erakundearen/enpresaren lan-ordutegiak ikasleari ahalbidetzen badiu praktikaldi osoa egitea gutxienez lau orduko eta gehienez sei orduko derrigorrezko lanaldi batekin.

d) Praktiken xedea da ikastaroan eskuratutako ezagutzak eta trebetasunak abian jartzea, praktiken enpresa edo erakunde hartzaileko lanak egiten lagunduz.

e) Praktikek IVAPen dirulaguntza jasotzen dute. 2022ko ekitaldian, 22.000 euro erabiliko dira, gehienez. Zenbateko horretatik, praktikaldian dauden pertsonen Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzeko zenbatekoa eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atxikipenak eta konturako ordainketak deskontatuko dira. Deialdi honetan esleitutako laguntza guztiak zenbateko berekoak izango dira. Arestian adierazitako zenbatekoa laguntza esleitu zaien ikastaroko ikasleen kopuruaren artean hainbanatuta kalkulatu da kopuru zehatza, baina laguntza bakoitza ez da sekula 2.222,22 eurotik gorakoa izango.

f) Praktikaldian dauden ikasleak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartuko dira, IVAPen kargura, prestakuntza-programetan parte hartzen duten pertsonak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzeko baldintzak eta betebeharrak arautzen dituen urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuak araututako moduan eta baldintzetan, eta Gizarte Segurantzako sistema eguneratu, egokitu eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa garatzeko.

g) Erakundeko/enpresako pertsona bat izango da praktiketan arituko den pertsonaren tutorea.

h) Honako hauen arabera hartuko dira praktiketako ikasleak: praktikak egin nahi dituzten ikasleen kopurua, ikasle horiek harrera-enpresen eta -erakundeen zehaztapenak betetzea (espezialitate profesionalari eta praktikak egiteko hizkuntzari dagokienez) eta praktikak egingo dituzten pertsonen destino posibleen artean egiten duten aukeraketa.

Hirugarrena.– Ez dago kontratu-obligaziorik praktikak egiten diren enpresaren edo erakundearen eta praktikak egiten dituen pertsonaren artean.

Enpresak edo erakundeak praktikak egiteko pertsona bat onartzeak –edo praktikaldian dagoen pertsonak erakundearen/enpresaren egiten duen egonaldiak eta jarduerak– ez dakar inolako kontratu-loturarik Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) eta dirulaguntzaren jasotzailearen artean, ez eta praktikaldia egiteko enpresaren eta/edo erakundearen eta dirulaguntzaren jasotzailearen artean ere.

Laugarrena.– Enpresa/erakunde hartzailearen egitekoak eta obligazioak.

a) Praktikak egiten dituenari aukera ematea praktikak egiten diren unitateko eremu profesionalan eta bere espezialitate profesionalaren eremuan laguntzeko.

b) Praktiken tutoretza-lanak egingo dituen pertsona izendatzea. Horrek gidatu eta gainbegiratu du praktiken garapena. Horretarako, tutoreak txosten bat egingo du, eta, bertan, praktiketan hartutako pertsonak egin duen lana, erakutsi duen prestakuntza-maila eta lan horren gaineko balorazioa adieraziko ditu. Gero, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolara bidaliko du txostena, gehienez ere hiru eguneko epean, praktikaldia amaitzen denetik hasita.

c) IVAPi jakinaraztea praktikaldia betetzeari dagokionez sor daitezkeen gorabeherak –uko egi-  
tea, ezintasuna eta antzekoak–.

Bosgarrena.– Praktiketako pertsona bat hartzea eskatzen duten erakundearen/enpresaren betekizunak:

a) Hirigintzaren, lurralde-plangintzaren eta ingurumenaren eremuko unitate espezifikoak eta horri atxikitako langileak edukitzea.

b) Praktikak egiten dituenaren tutore-lanak egiteko pertsonaren bat edukitzea praktikaldian, pertsona horrek enpresan betetzen duen espezialitate profesionala eta praktiketako ikaslearen espezialitate profesionala kontuan hartuta.

c) Praktiketako pertsona bat hartzeko eskabidea aurkeztea, hurrengo oinarrian adierazten den moduan eta epean.

Seigarrena.– Eskabideak aurkeztea, betekizunak, epea eta zuzentzea.

Deialdi honen arabera pertsonak praktiketan hartzeko interesa duten entitateek izapidetze elektronikoen bitartez aurkeztu behar dituzte eskabideak, honako helbide elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1047205/z16-a3prevet/eu/>

1.– Eskaeran, datu hauek jasotzen dira:

a) Erakunde edo enpresa eskatzailearen identifikazioa eta zein unitaterako eskatzen den praktiketako ikaslea.

b) Eskatzen den ikaslearen espezialitatea, arlo hauen artean: juridikoa, arkitektura, ingurumena.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, entitateak hirigintzaren, lurralde-plangintzaren eta ingurumenaren eremuko unitate espezifikoak eta horri atxikitako langileak dituela adieraziz.

d) Erantzukizunpeko adierazpena, entitateak, praktikaldian, praktikak egiten dituenaren tutore-lanak egiteko pertsonaren bat duela adieraziz, pertsona horrek enpresan betetzen duen espezialitate profesionala eta praktiketako ikaslearen espezialitate profesionala kontuan hartuta.

e) Praktikak egingo diren unitatean lanerako zein hizkuntza erabiltzen den: euskara, gaztelania edo euskara eta gaztelania.

2.– Eskabideak aurkezteko baldintzak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzean erabilgarri dauden ziurtagiri elektronikoak onartuko dira. Ziurtagiri horiek Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/y22-izapide2/eu/> kontsulta daitezke, «Izapideak/Identifikazio elektronikorako onartutako bitartekoak» atalean.

Hori dela-eta, erakunde eskatzaileek erakundearen ziurtagiri elektronikoarekin identifikatu beharko dute beren burua.

Izapidea ordezkari baten bidez egiten bada, ordezkaritza-agiria aurkeztu beharko du horrek.

Pertsona fisikoaren ziurtagiri batekin identifikatuz gero eta ordezkarien erregistro elektronikoa alta eman gabe egonez gero:

a) Erakundea legez ordezkatzeko, notarioaren bidez egiaztatutako sinadura jasotzen duen dokumentu publiko edo pribatuaren kopia eskaneatua aurkeztu beharko du (PDF formatuan).

b) Borondatezko ordezkaritzarako, legezko ordezkaritza boluntarioa esleitzeko inprimaki normalizatua aurkeztu beharko du.

Erakunde publiko baten izenean jarduteko, eskuduntzak eskuordetzeko inprimaki normalizatua aurkeztu beharko du, edo eskaera aurkezteko eta prozedurak eskatzen dituen kudeaketak egiteko baimena duela egiaztatzen duen bestelako edozein dokumentu. Bietan, eskaerari erantsi beharko zaizkio inprimakiak.

3.– Aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

#### 4.– Eskabideak zuzentzea.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, aurkeztu beharreko eskabideak eta dokumentuek ez badituzte betetzen deialdi honetan ezarritako baldintzak, edo haien edukia ez bada nahikoa, eskatzaileak 10 egun balioduneko epea izango du akats hori zuzendu edo eskatutako dokumentuak aurkezteko. Horrela egin ezean, eskabidean atzera egin duela joko da, Administrazioak ebazpen espresua eman eta jakinarazi ondoren.

#### 5.– Gainerako izapideak.

Espedienteetara sartzeko eta horien izapidetzea eta jarraipena egiteko, <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> egoitza elektronikoa «Nire karpeta» atalera sartu behar da.

Zazpigarrena.– Praktikak egitea eskatu duten pertsonen eta erakunde/enpresa eskatzaileei praktikak esleitzeko prozedura.

Unitateren batean praktikak eskaini dituzten enpresen/erakundeen zerrenda jakinaraziko zaie praktika horiek eskatu dituzten ikasleei.

Ikasleek, Hirigintza eta Lurralde Ikasketak Ikastaroan lortutako puntuazioaren hurrenkeran, praktikak egiteko enpresa/erakundea hautatuko dute, betiere titulazioari eta hizkuntza-unitateari buruzko erakunde/enpresa eskatzailearen baldintzak betetzen badituzte. Hautaketa horretan oinarrituta, praktikaldiko ikasleak eta balizko ordezkotzak jasoko dituzten erakundeak/enpresak zein diren zehazten duen ebazpena emango du IVAPeko zuzendariak.

Diruz lagundutako praktikak esleitzeko edota deialdia hutsik uzteko ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Zortzigarrena.– Praktikak egiteko erakundea edo enpresa onartzea.

Praktiketarako destino gisa esleitua izan den erakundeak edo enpresak jakinarazi egin beharko du onartu egiten duela praktikak egingo dituen pertsona, eta onarpen horren berri emango du espreski, telematikoki, <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalean, jakinarazpena jaso eta 3 eguneko epean.

Onarpen hori formalizatzeko modua eskaintzen da atal horretan, prozedura errazte eta arintze aldera. Hala ere, enpresek eta erakundeek bestelako idazki bat aurkeztu ahalko dute aipatu atalean, konfigurazio juridikoaren arabera bete behar dituzten arauak jarraikiz, praktikak onartzen dituztela eta destino horretan esleitu duten pertsona zehatza onartzen dutela adieraziz.

Bederatzigarrena.– Administrazio-isiltasuna.

Deialdi honen ebazpenaren indarraldia hasten denetik sei hilabete igarota, erakundeei eta/edo enpresei praktiketako pertsonak esleitzeko ebazpenik argitaratu ez bada deialdiaren Interneteko helbidean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, ezetsizat jo ahal izango da eskabidea, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1.a) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Hamargarrena.– Datu pertsonalen babesa.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (Datu Babeserako Erregelamendu Orokorra) pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa eta datuak

2022ko maiatzaren 31, asteartea

babesteari buruz indarrean dagoen gainerako legeria betez, jakinarazten dugu datu pertsonalak tratamendu-jarduera honen barruan sartuko direla: «Prestakuntza eta Hobekuntza». Tratamendu horren helburua da deialdi hau kudeatzea eta ebaztea.

Tratamenduaren arduraduna da Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen Zuzendaritza. Datuetarako iristeko eskubidea, datuak zuzentzeko, ezabatzeko edo emateko eskubideak, tratamendua mugatzeko eskubidea, tratamenduari aurka egiteko eskubidea eta emandako adostasuna errebokatzeko eskubidea, edo aplikagarria zaion araudiak arautzen dituen gainerako eskubideak Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen Zuzendaritzaren zein Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Datuak Babesteko ordezkariaren aurrean balia daitezke

Ez da aurreikusten datuen lagapenik.

Hemen kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/021300-capa2-eu.shtml>